



# pluralismoaren

alde salbuespenik gabeko  
gizarte ekimena

## Elkartasunaren manifestua

1. Pluralismoarekiko konpromisoa gurea bezalako gizarte konplexu eta askotarikoan, Euskal Autonomia Erkidegoan zein Nafarroan, gatazken konponbidean faktore demokratikoa da. Bazterketak, pluralismoaren antitesi gisa, bizikidetasuna urratzen du eta enfrentamenduen eta gatazka kronikoen faktore sortzailea da. Gure errealitate soziala –naziotasun-sentimenduetan, kultur identitateetan, tradizio politikoetan eta herri-proiektuetan plurala–, bazterketa-estrategia desberdinengatik zuzenean erasotua aurkitzen da.

2. ETaren mehatxuak, jazarpenak eta atentatuak, batez ere PP, UPN, PSE eta PSNko hautetsi eta kideen aurka zuzenduak, desberdinaren ezabapen fisiko- eta bazterketa-estrategia onartezina osatzen dute. Batasunaren ilegalizazioa disidentearen proskripzio politiko- eta bazterketa-estrategia bat da, gizartearen gehiengoaren borondatearen aurka ezarria. Estrategia desberdinak dira izaera, arrazoi eta ondorioei begiratuz gero. Ezin dira parekatu, bizitza giza eskubide gorena delako eta eskubide hori gabe gainontzeko eskubideak erabiltzea ezinezkoa delako. Dena den, bi estrategia hauen ondorioak puntu batean bat datoz: pluralismoaren printzipioari eragiten diote bizikidetasun soziopolitikoa larriki nahastuz.

3. Gizartearen zati bat baztertzek bizikidetasunaren printzipioetan eragin ez ezik, gure herrikideei kalte ere egiten die. Mehatxatutako pertsonen lekuan jarri nahi dugu. Bidegabekeria jasanezina da mehatxatua, jazarria edo erasotua izatea alderdi politiko baten hautagaia, zinegotzia edo hautetsia izateagatik. Ilegalizatutako sektore sozialen tokian jarri nahi dugu. Zentzugabekeri demokratikoa da nahi duenak hauteskondeetara aurkeztu ezin izatea edo gizartearen zati bat erreferentzi politikorik gabe geratzea bere hauteskunde-adierazpen askatasuna erabiltzeko.

4. Bestearen lekuan jarri nahi dugu eta ez dugu nahi hitz hutsetan geratu. Manifestu hau sinatzen dugunok bolondresen zerrenda bat osatu eta ondorengo konpromisoa hartzen dugu geure gain:

- Udal-hauteskundeetarako ETaren mehatxupean dauden alderdi politikoetako hautagaien zerrenden azken lekuetan joateko prest gaude;
- eta gure gizartearen zati bat, ilegalizazioaren strategiengatik, hauteskunde-adierazpen askatasunik gabe geratuko balitz, prest gaude, halaber, alderdi politiko bat legalizatu asmoz izapideak egiteko alderdi hori gizarte sektore hauei eskaintzeko.

Jarrera honek ez du inolaz ere esan nahi proiektu politikorik babesten dugunik, gizabidezko salaketa- eta elkartasun-testingantza da.

5. Ekimen honen mugetaz jabetzen gara. Dena den, lau helburu bete ditzake: bazterketa-estrategiak salatu; ondorioak pairatzen dituztenei elkartasuna adierazi; pluralismoarekiko gizabidezko kontzientzia sortu; eta berdintasunean eta desberdintasunaren onarpenean oinarritutako ekimen berrietarako eta elkarrizketaren bidezko gatazken konponbide prozesuetarako abiapuntu izan. Gizarte plurala izan gara, gara eta izango gara. Ezinbestekoa da pertsona guztiek, ideia guztiek eta gure gizartean errotutako proiektu guztiek gure bizikidetasun politikoaren markoan lekua izatea. Pluralismoaren defentsan giza eskubideen defentsan bezala, ez dago salbuespenentzako lekurik. Pluralismoak gizatiartu egiten du eta bazterketak, aldiz, gizatasuna kendu.

Manifestu hau sinatu hahi, edo besterik gabe ekimena babestu gura, edo informazio gehiago behar izanez gero jar zaitez Elkarrirekin harremanetan

902 421010  
[www.elkarri.org](http://www.elkarri.org)